

Proiektuaren deskribapena

DAGBI taldea (Bik)

Nortzuk gara?

Espainiako Donostiako Jesuitak eskolako batxilergoko bigarren mailako ikasle talde bat gara. Gure enpresa irakasgaian berritzailea den proiektu bat lantzen ari gara, BIK/DAGBI - Super-Boli deitu duguna (gure inzialekin patentatzeko). Gure ideia boligrafo eta arkatz ezabagarri bati buruzkoa da, bata zein bestea gure produktuaren barruan baitaude. Alde batetik boligrafoa da eta bestetik arkatza. Gure helburua idazketa bezain sinplea eta garrantzitsua den zerbaiten eraginkortasuna lortzea da.



Zein da gure helburua?

Gure helburua da lana edo ikasketak egiteko asko idatzi behar duten pertsonen lanak arintzea, bi tresnak eta borragoma bat objektu berean izateak bizkorrago idaztea ahalbidetzen baitu. Hori lortzeko, Donostia mailan hasiko ginen, hitzaldiren batera joanez, gure produktua ezagutarazteko eta jendeak ezagutu dezan. Gero, gure produktua hiriko dendetan salduko genuen, pixkanaka mundu mailan zabaltzeko eta saltzeko.



Beste galdera batzuk:

Zeintzuk osatzen dute negozioa? Gabriel Ottone, Blanca Urbizu, Irene Gonzalez, Aitor Martinez eta Daniel Blazquez (enpresaburua).

Nola okurritu zitzaigun?: Lehen Ireneri okurritu zitzaion nolabaiteko fitxategi eraginkor bat egitea, gero pixka bat guztion artean hasi ginen esaten beste ideiak, baina dagoeneko sortuta zeuden (pelota-freesbea esaterako). Eta orduan, Gabrieli bururatu zitzaion modu simple batean super-boli idea. Azkenean, klasean geunden hautaketa egiteko, beraz, arkatzetatik eta boligrafoetatik inguratuta egon ezkerro, hori atera zen.

